

bidegileak



Teodoro G. Hernandorena (1898-1994)

Egilea:

JOXE MARI IRIONDO

Zizurkildarra, Otaño bezala

*G*izon txiki eta bizi hari Teodoro deitzen genion beti. Baina Teodoro Godofredo Hernandorena zen, bere jaiotagiriak dioenez. Gero jakin genuenez, gehientzat Teodoro zen, baina adiskide minentzat, Godo. Zizurkilgo Herriko Etxean jaio zen, 1898ko azaroaren 6an, arratseko zortzietan. Hilaren 9an bataiatu zuen Juan Lorentzo Garmendia herriko parroko jaunak.

Medikuntza eta Estomatologia-karre-
rak ikasi zituen. Baina gero, politika
alorrean, zinegintzan, pilotan eta, ba-
tez ere, iparraldeko bertsolaritza sus-

pertzen saiatu zen, buru-bihotz. Idatzi, *Herria*, *Zeruko Argia*, *Bidasoa*, *Anaitasuna* eta *Principe de Viana* aldizkarietan idatzi zuen, gehienbat.

Abertzaletasunak eta gerrak urte luzetako erbestearen opari mingotsa egin zioten. Baina ez zuen etsi, harik eta berriz ere, 1970ean, Bidasoako mugaren gainera pasatu eta Hondarribira bizitzera etorri zen arte. Azkenik, Donibane Lohizunen hil zen,



Teodoro Godofredo Hernandorena (1898-1994)

1994ko azaroaren 9an, 96 urte bete eta handik hiru egunera.

Aita, Nikolas Hernandorena Sarasua, Nafarroako Mendigorriako semea zuen. Ama, berriz, M.^a Pilar Barandiaran Lizarraga, Legorretako alaba. Bata herriko sendagile eta bestea herriko maistra, Zizurkilen bizi eta hil ziren. Beren bost seme-alabak herri hone-tantxe jaio ziren.

Herri euskaldun peto-pettoa zen Zizurkil garai hartan. Berak esan ohi zuenez, Teodoro-ren gurasoek euskaraz ondo egiten zuten, herritar haien zerbitzari izateak horrelaxe eskatzen zien-eta. Alabaina, haienean gaztela-

niaz hitz egiten zuten beti, herriko hurrek ez ezik, etxeok ere gaztelania ondo ikasi behar zutelako-edo. Garai hartako guraso gehienen kezka nagusienetakoa horixe izaten zen, batez ere herri txikietan eta baserritarren artean.

Horrexegatik, euskara ikasi Zizurkilgo hurrekin jolasean, kalean ikasi zuen Teodoro mutikoak. Haienean ez zegoen euskararik, ez euskal girorik. Eta hala ere, guk ezagutu genuenean, Pedro Mari Otaño bertsolari handiaren jaioterriko euskara eta iparraldekoa, biak, nahasi egiten zituen Teodorok, gero bere emazte eta seme-alabek egiten duten bezalaxe.



Hondarribiko *Arkaitz* etxetik itsasoari begira

Aske izan nahi

Behin batean, ama gaixo zegoela, Zizurkilgo parroko jauna etxeoandrea bisitatzera etorri zitzairen. Eta hala, Teodoro mutikoa oso argia zetorrela ohartuta, zergatik ez zuten Andoaingo seminariora bidaltzen esan zien gurasoei. «Este chico va para borlas!», esaten omen zuen, bizkorra zetorrela ikusita. Bidea erraztu eta ikasten hasteko, lehenengo latinezko lekzioak berak emango zizkiola hila-bete batzuetan; eta gero Andoainen etsaminatuko zutela.

Erretore jaunaren eskaintza oso ondo hartu bide zuten gurasoek. Izan ere, etxean seme apaiz bat izatea ohore handia izan zitekeen halako familia sinesmen sendoko batean. Amak, batez ere, gustu guztiz bidaliko zukeen seminariora.

Bai, baina mutikoari berari ez zion batere ilusiorik egin apaiz jaunaren proposamenak. Apaiz izatea, izan ere, inoren mendeko izatea zela iruditu izan zitzaion beti berari. Eta ez zuela seminariora joan nahi esan zien gurasoei hitzetik hortzera. Hark ez zuela apaiz izan nahi inola ere. Libre izan nahi zuela.

Gainera, bere lagunik onenak bestelako ikasketak egiten ari zirela. Eta bere aita bezalaxe mediku izan zitekeela pentsatzen

zuen. Zergatik ez? Buru argikoa zen, eta ikasle ona ere bai.

Alabaina, gogo onez edo txarrez, gurasoek agintzen zutena egin behar izaten zen sarritan. Eta halaxe egin behar izan zuen zizurkil-dar gazteak ere. Laster hasi zen latina ikasten, egunero Andoainera joanez.

Euskararen aldetik, berriz, etxean giro txarra bazuen, Andoaingo seminarioan txarragoa zegoen. Oso giro erdalduna aurkitu omen zuen han, ikasleen artean eta irakasleen artean, bereziki. Hango bizimodua oso aldats gora egiten omen zitzaion, baina hantxe jarraitu behar, ordea, haienean halaxe agintzen zuten-eta. Bederatzi urterekin etsaminatu zen lehenengo aldiz.

Gogo handirik gabe, baina seminarioko ikasketak aise eta erraz egiten zituen. Eta Andoainen egin beharrekoak lau urtean burutu, eta handik Gasteizera bidali zuten, apaiz-karrera osatzen jarrai zezan, eta hurrena Comillasera joateko aukera emango ziotela aginduta. Baina filosofiako hiru urte eta teologiako lehenengoa egin ondoren, 1915ean, erabaki sendoa hartzeko ausardia izan zuen gazteak, aitari abisatu gabe, badaezpada ere: seminarioa utzi, eta beste zerbait ikasten hasi nahi zuela. Eta horixe egin zuen.

Aitarener haserrea

Amatxo hila zen ordurako. Eta aita zeharo haserretu zitzaion. Ez zuen onartzen semearen bihurrikeria hura, hamazazpi urte besterik ez baitzuen artean. Onean edo txarrean, nola edo hala, gaztea arrastoan sartu nahi zuela eta gogor saiatu zen. Baina nortasun handiko mutikoa ez zegoen atzera egiteko prest. Aita haserre ikusten zuen, baina bera ere onean hobea zen txarrean baino.

Norbaiti esan behar eta, «nik ez dakit zer egingo dudan, baina argi daukat ez naizela jaiio inoren mende izateko!», esan zien bere lagunik onenei. Eta sekula ere gogoko izan ez zuen seminarioa utzi zuen. Baina zer egin gero?

Oso haserre zegoela-eta, aitak ez zuela etxean hartuko iruditu nonbait, eta Ataunera joan zen, egun batzuk pasatzera; han lagun onak baitzituen. Izan ere, ama zena hango maistra izana zen-eta urte batzuetan. Bazekien onartuko zutela, eta asmatu zuen ederki.

Gazte bizkor hura ez zuen ezerk beldurtzen, bistan denez. Edozertarako prest zegoen, gainera. Batez ere, lan egin eta bere buruaran jabe izan nahi zuen; bere gisara bizi, txoriak bezain aske izan. «Gizon txikia nintzan, eta ez oso figura onekoa neskatarakota. Horregatik, abogadu, mediku edo horrela izan nahi nuen nik», kontatu zidan behin elkarrizketa batean.

Lehenengo erauntsi beltzak iragan eta giroa zerbait baretu zenean, karta egin zion aitak, etxera etortzeko eskatuz. Eta eskaria berehala onartu zuen Teodorok. Baina gauzak argi eta garbi utzi nahi zizkion aitari: «Ni ez naiz hona diru eske etorri, aita. Jatekoa eta ohea ematen badizkidazu, zerbait egingo dut nik! Lehenengo, batxilergoa egin nahi nuke, behar ditudan liburuak nere lagunetik utziko dizkidate-eta», esan zion. Eta gero gerokoak.



Hernandorena mediku gaztea

Mediku, aita bezala

Berak uste baino hobeto hartu bide zuen aitak etxean. Gogor eta gozo, bide batez. Baina denbora gutxi egin zuen Zizurkilen. Karrera egiteko behar zuen batxilergoa bi urtean burutu, eta albaitaritza ikasten has zedin animatu zuen Billabonako medikuak, egundoko bizimodua zeramatera horiek-eta. Medikuen aldean lan erraza egiten omen zutela, eta askoz gehiago irabazten. Ondo bizi zirela, gainera. Eta ondo bizi, libre izan eta diru asko irabazteak gaztearen gogoia asebetetzen zuen.

Berehala ohartu zen, ordea, Billabonako sendagile jaunaren gomendioz hasi zuen karrera ez zitzaiola asko gustatzen. Eta ez zuen denbora alferrik galdu nahi. Berriz ere lagunek utzitako liburuak galtzarpean hartu eta hurbil zeukan medikuntza-fakultatera pasatu zen.

Aitaren sendagile-esperientzia etxean ezagutu arren, osasun-kontuan tutik ez zekiela kontatu ohi zuen. Bost axola hari. Ikasteko erraztasun handia zuen, eta laster jarriko zen beste ikaskideen mailan.

Zaragozan ari zen ikasten, bada. Baina oso gutxi aurreratzen zuen; berak nahi baino askoz gutxiago. Sekula gaixo bat aurrean ikusi gabe gaixoen osasunari buruzko karrera ikastea, bide okerra zela iruditzen zitzaion. Ikasi, benetan ikasi, praktikak eginez ikasten dela, alegia.

Halatan, Bilboko Basurtoko Ospitalean lanean ari zen bere ikaskide batek, Gotzon Irigarai idatzi zion behin batean, Bilboko gaixoe-txe handi hartan lan asko zegoela eta hara joateko eskatuz. Karrera egin eta hilean 500 pezetako soldata kobratuko zuela gainera, ospitalean lan pixka bat eginez. Praktika hori behar-beharrekoa zuela, eta oso ondo etorriko zitzaiola. Orduan ikusi zuen bere bizitzako zailtasunik gaiztoenak amaitu zirela beretzat. Lana egingo zuela, dirua irabazi eta, gainera, medikuntza-karrera ondo ikasiko zuela.

Bilbora joateko erabakia hartu zuen, lagunak eskatu bezalaxe. Eta handik aurrerako ikasketak, lanorduetatik kanpora, bere kasa egin



Euskal politikan buru-bihotz sartuta

zituen, eskolara joan gabe, apunteak hartu eta etsaminatzeko ez bazen.

Dena ez zen, ordea, laua eta erraza Basurton ere. Bere ikasketak eta Ospitaleko lanaren artean borroka eta zalantza gogorak izan zituen, azkarraren azkar beharrez. Esan ohi zuenez, bigarren urtean ari zela, bosgarren urteko asignatura batera aurkeztu zen, ausart, etsamina ondo samar egiteko gai zela ustez. Baina irakasleak ez zuen onartu nahi etsaminatzeko. Hiru-lau bider esan omen zion alde egiteko handik, bigarren ikastaroko ikaslea zela, eta ez zegoela bosgarreneko etsaminarik egiterik esanez. Berak kasurik ez, ordea. Bazekien ez zuela handik botako, ezta inola ere.

Eztabaidan ibili, eta azkenik etsaminatu zuen, horraitio. Zer gertatuko eta beste ikasle denak suspenditu eta Hernandorenak bakarrik aprobatu zuen ikastaroa. Galdetzen ziona




Luis Mariano eta lagunekin txantxetan. 1938

galdetzen ziola, etsamina oso ondo prestatuta baitzeukan.

Bilboko gaixoetxeko lanak burutu zituenean, berriz ere mundua ikusteko burutapena esnatu zitzaion barrenean. Bartzelonatik itsasoz itsaso abiatzekotan zen barku bateko bidaiarientzako mediku bat aukeratzeko konkurtsoa zegoela irakurri zuen egunkarian. Eta bertan erabaki zuen zer egin: lehiaketako baldintzak zertsu ziren jakin, eta han aurkeztu zen, berriz ere azterketara.

Ahalegin horri esker, Espainiako porturik handienak ezagutu zituen, bidaiantzi ikusgarri hartako medikuntza lanak eginez. Bilbotik irten eta Kanarietara joan zen barkua; eta handik Habanara. Mundua ikusi nahi zuela buruan sartu zitzaion, eta mundua ikusteko aukera ederra izan zuen, azkenean. Mundua ikusi, eta dirua irabazteko aukera gainera. Askotan kontatu ohi zuenez, lehenbiziko hilabetean diru gehiago irabazi zuen barkuan, herriko mediku-lanetan urtebetean baino.



Donostian eta Bilabonan lanean. Argiako iragarkia. 1932

Billabonatik Donostiara

Konformagaitza zen gogotik. Medikuntza-karrerara egin, mundua ikusi eta Billabonara bidali zuten, 25 urterekin, herriko mediku izan zedin. Ez zen lantoki txarra. Hantxe bizi zen garai bateko bere lagun asko, bere emazte-gaia eta haren familia; eta hainbat tarteko eta ezagun ere bai. Lagunak eta berari gus-tatzen zitzaion giro atsegina aurkitu zituen, bat-batean.

Hala ere, hiru-lau urte lanean egin zituenerako, hasi zen berriz ere aurrera begiratzen. Zerbait gehiago nahi eta, «zergatik ez estomatologia ikasi eta dentista egin?», esan zion bere buruari, helburu berrietara iristeko irrika betearekin. Herri koskor bateko mediku izateak ez zion ematen berak uste adinako irabazirik eta, batez ere, nahi zuen adinako osperik. Zerbait gehiago izan nahi zuen. Bistan da. Halaxe, dena utzi, eta berriro ikastera joan zen, Madrilera.

Estomatologia-ikasketak egiteko burutapena izan, esan bezala, eta egin zuen hura ere. Bi urteren buruan karrera amaitu eta titulu berriaren jabe egin zenean, Donostian dentista-lanerako plaza bat bazegoela esan zion lagun batek. Berriz ere, lan berria esku-eskura zetorkion, bada. Eta emaztearekin hitz egin zuen, Donostiara joatea zer iruditzen zitzaion esan ziezaion. Ondo iruditu hari ere, eta Gipuzkoako hiriburura joateko erabakia hartu zuten, 1930ean.

Ezkontza

Hogeita hamar urterekin, euskal politikaren zurrunbiloan buru-bihotz sartzen hasi zenean, ezkondu zen Teodoro Godofredo Hernandorena, 1929ko urtarrilaren 10ean, Donostiako San Sebastian martiriaren elizan, Billabonan aspaldi ezagutu zuen Maria Mercedes Albea Urrutia nexka gaztearekin.

Gaztea esan al dut? Bai, bera baino hamar-hamaika urte gazteagoa zen nexka. Billabonako Albea sendagile ezagunaren alaba, gainera. Hamahiru-hamalau urte zituela hasi omen zen nexka xarmangarri hari begia bo-



Donostian ezkondu ziren. 1929-01-10ean

tatzen, andreak 78 urte bete zituen egunean seme-alabei hitzaldi batean kontatu zienez:

Gogoan daukat —esan zien— nik 23-24 urte nituala, 13-14 urte izango zituen poxpolin xarmangarri hari begira hasi nintzanean. Ez nintzan nexka polit bati atsegin zaion mutil eder galai horietakoa, ez nintzan lña-kiren antzekoa. Bestalde, bera mediku famatu baten alaba zen, eta ni mediku hasiberria, artean. Eta horrek ere kontatzen zuen gizarte hartan. Baina nik nerean jarraitu nuen. Ez nuen etsi inoiz.

Hernandorenaren etxean bezalaxe, Billabonako jauntxoan etxeetan ere ez zen euskaltzaletasunik, garai hartan. Ezta Albeatarrenean ere. Baserritarrentzat eta jende xehearentzat uzten zen euskara eta euskaltzaletasuna, batez ere herri txikietan. Alabaina, ezkondu bezain azkar euskaldundu eta abertzaletu zen Albearen alaba M.^a Mercedes. Eta areago, Hernandorenak askotan aitortu izan zigunez, politikak familiara ekarri zituen zama eta sufrikario guztiak oso-osorik onartu zituen, gainera. Seme-alabei euskara eta euskal

giroa erakusten saiatu da beti, emakume argi, maitagarri eta txukun porrokatua. Oraindik ere, ahal balu!

Zortzi seme-alaba izan zituzten Hernandorenaren-Albea senar-emazteek: Ane Miren, Miren, Amaia, lñaiki, Miren Arantza, Itziar, Gu-renda eta Xabier, hain zuzen. Eta aita-amen bidean zintzo jarraitu dute beti. Haien etxean bizitako giroaz eta gurasoez hitz egiten dutenean, ahoa betetzen zaie: aita lanean, hitzaldiak ematen, batekin eta bestearekin antolaketak egiten; eta ama, etxe-ko lanetan, beti eskulanean bat egiten, bere seme-alabak txukun eta ondo azal zitezen. «Jende ona gerala ikusi dezatela behintzat!», esaten zien hurrei erbesteko urte gogorretan.

Ezpeletan eta, batez ere, Paris eta Donibane Lohizune artean urte luzeak egin zituzten. Joanda gero erraz esaten da, baina hogeita hamar urte ez dira ahuntzaren gauerdiko ez-tula familia handi batentzat, hainbat beharri-zani egunero erantzun behar zaionean, batez ere. Teodoro zenak eta, batez ere, ama Mercedesek ikasi zuten ondo horren berri.

Politikan buruz aurrera

«*R* aragozan egin nintzen euskaldun, eta Bilbon abertzale» aitortzen zuen, harro asko. Edonork izan ez dituen bi maisu handi izan zituen horretarako: Gotzon Irigarai eta Justo Garate doktoreak, hain zuzen. Euskaldun jakintsu eta abertzale finak biak ere.

Bilbon bizi zen garaian gutxitan hitz egiten omen zuten politikaz. Baina hitz egiten zutenean, bai serio eta sakonki hitz egin! Patxada onean eta aurrera begira, zerbait gehiago egiten hasteko garaia zela-eta Euskal Herriaren etorkizunaren alde.

Errepublikak ondoren, hutsune handia sortu zen Donostia aldean ere. Gazteak



Senar-emazteak.
1981eko Aberri Egunean, Aiegin

ez ziren ausartzen kalera irtetera, beldurraren beldurrez. Hala ere, Donostiako Udaletxeak bazuen *Academia de Música y Declamación* areto bat, eta astean edo hamabostean behin hantxe biltzen ziren ezkertiarak. Batzuetan, sozialistak izaten ziren; bestetan, komunistak; hurrena, anarkistak... Eta Jose Ariztimuño *Aitzol* eta Alberto Onaindia joaten ziren haiei hitzaldiak ematera. Baina apaizak eta jende ezkertiarren artean zulo handiegia zegoela ohartu zen Hernandorena gaztea. Eta orduan

bururatu zitzaion zerbait gehiago egin beharra zeukala. Ez zuela gerokotan egoteak balio. Eta apaiz hizlari eta entzuleen tartekotza egi-ten hasi zen, koska haiek berdintzeko.

Bere ustez, ezin zitekeen abertzale izan aberriaren alde zerbait gehiago egin gabe. Hor-
txe zegoen gakoa. Bere lehenengo eginkizuna alderdi batean apuntatu eta konpromiso serioak hartzen hastea zela ikusten zuen. Duda-muda asko izan zuen. Eta halaxe ibili zen, aldi batean, EAJ-PNVra joan ala ANVra hurbildu. Izan ere, esan ohi zuenez, Bilboko bere lagun gehienak ezkertiar samarrak zirela ikusten zuen. Baita Donostiako zenbait adiskide on ere. Batean edo bestean sartu beharra zeukala iruditzen zitzaion, buru-bihotz lanean serio hasteko. Baina non afiliatu?



Etxeko liburutegian lanean

Azkenean, Euzko Gaztedian apuntatu zen, 1931n, bere adinerako egokiena huraxe zela irudituta. Alderdian sartu eta handik gutxira, hiru gazte etorri zitzaizkion etxera, Euzko Gaztediaren lehendakari izan nahi al zuen galdezka. Harri eta zur utzi omen zuen galderak. Izan ere, galdera baino gehiago proposamen zehatza zen hura, kargua agudo har zezan. Ezetz erantzun zien, bere burua ez zuela prest ikusten oraindik-eta. Baina handik egun gutxira, berriro etorri zitzaizkion, eta «kargu hau zuk hartu behar duzu», esan eta agindu zioten. Kontsultako lanak, Donostiako Orfeoioako tenore, hitzaldiak, eta orain Euzko Gaztediko lehendakari... Bazuen frakak bete lan oraintxe!

Gipuzku Buru Batzarreko lanetan geldi egon ezinaren gurpilean zebilen Hernandorena 1933an: festak antolatu, hitzaldiak eman, irratian euskarazko programa bat eskatu... Bergaran, Azpeitian eta abar, hitzaldi eta bilera handiak prestatu zituen. Lehenengoak erdaraz eman bazituen ere, jardunak berak erakutsi omen zion euskaldunei euskaraz hitz egitea hobe zela, mezua errazago ematen zelako. Eta aurrerantzean beti euskaraz hitz egingo zuela erabaki zuen, etxean bezala kalean.

Euskal Herriaren aipamenak kanpora ere atera beharra zegoela-eta, Dublinen, Buenos Airesen, Montevideon, Irlandan eta atzerriko beste herrialde askotan ibili zen hitzaldiak ematen, pilotari batzuk lagun hartuta.

Euzkadi-Europa

Donostian, 1934ko udaberrian, egingo zen Aberri Eguna prestatzeko gomendioa egin zioten alderdian. Eta ez zuen bi aldiz agindu beharrik izan. Berebiziko aukera zela bereztat iruditu zitzaion, lana egin eta zer nahi zuen erakusteko. Eta buru-bihotz ekin zion zereginari, honekin hitz egin eta harekin komentatu. Gerraurrean, 1934an, Donostian egin zen Aberri Egun hura izan zen geroko Aberri Egun askotako eredu eta jarraibide. Mila oztopo izaten zuten orduan ere, baina arrasto eta emaitza onak utzi zituen ondo-



Txanton Piperrri. Sekulako arrakasta Donostian

rengo urteetarako. Besteak beste, aspalditik buruan zerabilen amets bat burutzeko aukera eman zion zizurkildarrari.

Urte hartan bururatu zitzairen, lehenengoz aipatu zen *Euzkadi-Europa* proiektu handi hura: Euskal Herriaren izena eta ospea Kantauri ertzeko mugetatik atera, eta noranahi zabaldu eta hedatu, alegia. Argi eta garbi ikusten zuen herri txiki eta zigortu baten iraupenerako ezinbestekoa zela muga herriak puskatu eta kanpora irtetea, Euzkaditik Europara abiatzea, alegia, zer garen eta nora joan nahi dugun munduari adieraziz.

Ausardi handia behar zen. Baina zergatik ez Donostiako Orfeoi sonatu hartako jenderik onena hartu eta Gipuzkoako Euskal Abesbatza handia antolatu, beti Orfeoiaren mende egon gabe? Arriskutsua zen. Bazekien ondo. Baina, bestalde, garai ona zen horretarako: Gabirel Olaizola famatua aldi batean Italiara zehar kantari ibili ostean, Donostiara heldua zen ordurako. Eta, ondo pentsatuta, nor izan zitekeen huraxe baino egokiagorik Gipuzkoako Abesbatzaren buru eta zuzendari izateko?

Zirt-zart egin eta aurrera egin zuen. Hasteko, B. Zapirain eta T. Alzagaren *Chanton Piperrri* Euskal Opera prestatu zuten, Donostian lehendabizikoz eman, eta abesbatza berriaren zergatiak jendeari erakusteko. Ikaragarria izan bide zen kantaldia eman zuten egun hura!

Gero Bartzelonara

Donostiakorekin aski ez, eta Jesus Guridiren *Amaia* ikasi eta aurkeztu zuen Gipuzkoako Abesbatzak, Donostian. Eta arrakasta itzela izan zuten berriro ere. Baina gero, betiko galdera: zergatik ez aurrera egin?

Ez zegoen proiektu eder hura hartan uzterik. Bere *Euzkadi-Europa* proiektuaren bideetan aurrera egin nahita, *Amaia* euskal opera Europako teatrorik handienetara eramateko



proposamena egin zion Hernandorenak musikalaria gasteiztarrari. Eta hasteko, Bartzelonako *Liceo*ara joango zirela. Gasteiztarra ikaratu omen zen donostiarren ausardi zoroa ikusita. Baina baimena gogo onez eman zien, ezetz esateak ez zuela asko balioko-eta, seguruenik.

Halaxe, Bartzelonara joan, eta areto hartako arduradunekin hitz egin zuen, astebetarako alokatzeko. Garai hartako 9.000 pezeta handi eskatu zizkieten. Diru asko zuten lagun onak bazituen Hernandorenak, behar zenerako. Eta, EAJri sos bat eskatu gabe, astebetetz Bartzelonara joan eta *Liceo* handian kantatzea lortu zuen azkenik. Eta berealdiko arrakasta izan zuten han ere. Eta, sarre-rari esker, behar zutena eta diru gehiago atera zuten.

Gipuzkoako Euskal Abesbatzari eta, bide batez, Euskal Herriari egindako aipamenak oparo ibili ziren egun haietan, Katalunia aldeko komunikabide askoren ahotan. Eta Euskal Herrira itzultzerakoan, hasi Altsasutik eta Donostiara, denak taldearen zain omen zeuden bide ertzetan, ongi etorri egin eta zorionak emateko. Huraxe bai festaren zoramena!

T. Hernandorena iparraldean haur talde batekin



Seme Iñaki eta bere lagunekin. 1940



Alaba Miren eta Erresoinkako abeslari batzuekin

Euzkadi filma

Euzkadi-Europa lemapean, Hernandorenaren hurrengo ametsik handietakoa izan zen *Euzkadi* filma egin eta herriz herri proiektatu eta erakustea. Kamerariek zintzo jaso zituzten, 1933ko apirilaren 16ko Aberri Egunarekin hasita, Donostiako Kontxa Badiako barku-erakusketa, Santa Mariako mezetatik irteerakoa, Atotxako pilotalekuko mitin-hitzaldiko jendetzaren sarrerako irudiak, Jose Antonio Agirre lehendakaria, Telesforo Monzon, T. Hernandorena, eta Ewald Amenderen hitzaldiak, eta mitinean bildu zen jendetzaren aurpegi eta begiradak, eta abar. Eta hurrengo astean Gipuzkoako herri eta bazter asko bisitatu zituen talde teknikoak, Hernandorena

jauna lagun eta gidari zuela, irudi berriak jasotzeko.

Handik egun gutxira, Bartzelonako *Cine-Foto* etxearen aretoan bildu zen zizurkildarra, jasotako irudien balioa eta kalitatea ikusi eta aztertzeko, teknikoekin batean. Irudi haien ederra ikusita, «zergatik ez honi soinua jarri?; zergatik ez material gehiago bildu, eta Euskal Herriari buruzko film oso bat egin?», galdetu zuen, bere helburua lortzeko bide bikain haren aurrean.

Esan eta egin. 1933ko maiatzaren 24an, Kataluniako alderdi abertzaleetako politikoko asko etorri ziren berriro Euskal Herrira, *Cine-Foto* etxeko filmatzaileekin batera, EAJ-ko lagunaren gonbiteari erantzunez. Eta lanean hasi ziren, buru-bihotz, berriro.



Guraso eta seme-alabak, Parisen. Xabier falta da. 1950



Hitzaldia Montevideoko
Unibertsitatean. 1943-11-13



Eresoinka taldea La Hayan

Teodoro Hernandorena eta Joxe Ariztimuño *Aitzol* laguntzaile hartuta filmatu zituzten Donostiako San Telmo museoa, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaiako Zuloagaren museoa, Zestoia, Azpeitia, Tolosa, Elorrio eta Gernikako Bizkai Buru Batzarrak egindako ongi etorri ederra, Sukarrietan Sabino Arana-Goiriren hilobian egindako lore-eskaintza, Erandio, Axpe, Areta, Mungia eta Bermeoko ikuspeirik ederrenak. Baita Irundik hasi eta Santanderrera bitartean zeuden lantoki eta fabrikak ere. Eta, horiez gainera, herri-kirolak, Baztango mutil-dantza, baserriak eta nekazaritza, feria eta azoketako jendearen irudiak, eta abar.

Filma luzatu eta osatu beharrez, Bizkaiko Ezpata-dantza taldearekin hitz egin eta San Inazio eguneko saioaren irudiak hartu zituzten. Halaber, Bilboko San Mames zelaiko irudiak, kaleetan zehar egindako biribilketa harrigarria,


harri-jasotzaile, palankari, herri-dantza, Lekeitioko Kaxarranka, aurrekuak, desfileak, eta bi mila ezpata-dantzariren saioaren irudiak ere bai. Lekarozeko fraideekin osatu zituzten filmaren azkenengo metroak, 3.000 metroko taloa osatuz. Eta azkenik, herri honen etorkizuna adierazi nahirik, Hernandorenaren alaba baten irudiak hartu zituzten, poxpolin jantzita.

Beste laguntzaile asko ere izan zuten. Adibidez, Aita Donostiaren aholku zuzenak, eta musikari zegozkion azkenengo ukituak *Orfeo Catalá* famatuak egin zituen, Euskal Herrian grabatu gabe gelditu zirenak osatzeko.

Azkenik, filmaren bikoizketa profesionalki ondo egiteko, bere keinu eta jestuak buruz ikasi behar izan zituen Hernandorenak, irudiak eta hitza sinkronizatzeko ezinbesteko zela-eta. Jose Antonio Agirre lehendakariak ere beste horrenbeste egin behar izan zuten.



Euzkadi filmaren arrakasta



Euzkadi filma egunkarietan





Erbestean, lagunekin

Zinematan

Urte askoan amets eginda gero, Juan de Al-dazabal, Hernaniko parroko zen Aita Mendi-kute eta beste lagun askori esker, lortu zuen, azkenik, *Euzkadi* filma burutzea. Dena prest zeukaten 1933ko urriaren azkenalderako, 1933ko abenduaren 22an Donostian, eta 27 eta 28an Bilbon estreinako emanaldiak egiteko. Sekulako arrakasta izan zuten bi hiriburuetan ere, orduko egunkariak argi eta garbi esaten dutenez.

Gero, herrietako aretoetan ematen hasi ziren: Hernanin, Bermeon, Erreterian, Azkoi-

tian, Barakaldon, Areetan, Lekeition, Erandion, Zallan, Gernikan... Iruñean ere berebiziko arrakasta izan zuen, 1934ko otsailaren 28an.

Diru-zulo handi samarra egingo zuela pentsatuta, alderdiko kide asko zeharo beldurtu zitzaizkion Teodorori. Lehenengo Gipuzkoako Abesbatzarekin, eta orain *Euzkadi* filmarekin hondatuko zituela. Baina ez zuen inoren laguntasunik nahi. Bere proiektua burutzeko dirua behar zen, baina 5.000 pezetako hama-bi letra ordaindu zituen bere poltsikotik, ausardia handiz. Seguru zegoen ereindako haziak uzta ona emango zuela. Eta horrelaxe izan zen. Filma egiten xahutu zuen diru guz-



J. A. Agirre eta lagunekin erbestean

tia berreskuratu zuen Donostiako *Kursaal* eta Bilboko *Buenos Aires* antzokian.

Baina negargarria eta tristea izan zen halako arrakasta eta hainbat aipamen izandako filmaren azkena. Franco diktadorearen tropak Donostian sartu zirenean, ahal zuten guztia puskatu eta deuseztatu zuten. Batzokiak, bil-tokiak, familia abertzaleen etxeak, denak goitik behera miatu zituzten eta harrapatu zuten guztia puskatu. *Euzkadi* filmarekin ere berdin gertatu zen.



Pilotari jantzita. Bere anaien aukera izan balu...

Filma bahituta gero *Comisión de Guerra* zela-koak arduradunarekin hitz egin nahi zuela eta dei egin zioten zizurkildarrari. Baina beldur zen, oso beldur, eta ez zien jaramonik egin. Izan ere, Debako alkateak telefonoz hots egin zion gau batez, ordubiak aldean, eta esan: «Hemen gauzak oker zeudek. Itziarko apaiza hil ditek, eta Donostian beste asko ere bai. Ihes egizak agudo!». Halaxe, ezkutuka Bilbora joan, eta gauez irten zen handik, 1937an, Ezpeletara ihes egiteko, ordurako han zain zuen bere familiarekin elkartzeko.

Gero, 50eko hamarkadako lehen urteetan, artean Donibane Lohizunen bizi zirela, Robert Bresson jaunaren bisita izan zuen etxean, egun haietan kasting-probak egiten ari zen-eta zinegile frantziarra Italiako produktora batekin, Loiolako San Ignaziori buruzko film bat egiteko.

Hazparne, Maule, Baiona, Donibane Garazi eta barrualdeko beste herri askotan zehar Loiolakoaren antza zuenik aurkitzen ez eta «Teodoro, San Ignazioaren papera egiteko ez dut ikusten zeu baino egokiagorik», esan zion Bressonek Hernandorenari. Halaxe, Parisera joan, eta Billancourt estudiotara eraman zuten, gau batez, hitz egin, bere keinu eta jestoak aztertu eta hiru ordu luzeko kasting-proba egiteko.

Bere bizimodua goitik behera alda zezakeen aukera eskuetara zetorkiola ikusten zuen zi-



Billabonan, pilotari talde batekin

zurkildarrak. Baina ez zuen zorterik izan orduan ere. Proiektu hura atzeratu egin zuen, lehenik, Bresson eta lehenengo gidoia egin zuen Graham Greenen arteko konpondu ezinak; eta gero sortu ziren diru-arazoek, berriz, dena hankaz gora bota zuten.

Alabaina, ez ziren horretan amaitu haren zine-ametsak. Izan ere, 1953ko urte honda-

rretan, Parisen egin zen urteko *Euskararen Eguna* bileran, hitzaldi beroa egin zuen Hernandorena jaunak. Eta harekin erabat txundituta gelditu zen M. André jauna, eta *Sort Lekua* filma egiteko erabakia hartu zuela jakinarazi zien antolatzaileei, hantxe bertan. Eta hizlari harekin hitz egin nahi zuela bere asmoaren berri emateko.




Sarako omenaldian. 1985



J.M. Barandiaran eta P. Dutournierrekin. Sara, 1987

Bertsolari bila

eodoro Hernandorenaren beste maitasun handietakoa, beharbada bere begietako ninia, bertsolaritza izan zen. Biziki maite zuen hitzetik hortzerako jokoa. Biziki maite zuen bertsolaritza. Donostiako *Euskaltzaleak* taldea sortu zenean, bertsolariak baztertuta zeuzkan jende ikasiak. Baina baziren bertsolarietan sinesten zuten jakintsuak, bai. *Eusko Ikaskuntzak* hitzaldia antolatu zuen urte hartan Bergaran, 1930ean, Manuel Lekuona maisu handia hizlari hartuta. Aitzol ere berarekin batera joan zen, eta txundituta itzuli zela aitortzen zuen, bertsolaritzarekin erabat maiteminduta. Egun hartantxe ohartu zen bertsolariak zirela herria suspertzeko hizlaririk onenak, entzulearekin erraz bat egiten zutela-eta.

1935eko urtarrilaren 20an egindako *Lehenengo Bertsolari Eguna* izan zen euskara eta euskal ohiturak indartu nahi zituen talde-lanaren lehenengo emaitza nabaria. Giro hartan egosi zela, alegia, *Euskaltzaleak* taldeak antolatu zuen *Bertsolari Gudua*.

Teodorok iparraldera ihes egin behar izan zuen 1937an. Baina han ez zuen aurkitu hegoaldean bezalako bertso-girorik. Horrek min eman zion: pena ikaragarria. «Zer egin dezaket nik?», esan zion berriz ere bere buruari.

Munduko Bigarren Gerratea amaitu zenean, herriz herri eta auzoz auzo abiatu zen, baserrietan sakabanatuta bizi ziren bertsolarien bila. Dassance jaunarekin hitz egin zuen behin. Baina iparraldeko Euskal Herrian ez zela bertsolaririk hegoaldean bezala esan. Baina, «Halakoxe amorrazioa eman zidan —zioen—, bertan erabaki nuen mugaz haruzko Euskal Herria alde batetik bestera miatu behar nuela, ea bertsolaririk aurkitzen nuen inon».

Lehenengo txapelketak

Iparraldean herriz herri eta auzoz auzo ibili ondoren, hamasei bertsolari bildu zituen, 1946an, lehenengo aldiz Donibane Lohizunen egin zen bertsolari-bilkura hartarako. Denetan lehenengo, Ahetzeko Mattin atzeman zuen. Eta handik aurrera ahoz aho egingdako zabalkundeari esker, hamaseiko taldea osatzea lortu zuen. Bankan bizi zen Juan Felix Iriarte iruritarrekin hitz egin zuenean, baiezkoa eman zion. Eta berarekin batera beste bertsolari bat eramango zuela, bertsolari ona gainera. Urepeleko artzain bat zen: Ferdinand Aire *Xalbador* handia.

Dena den, bertsolari batzuk erraz berotu zituen txapelketarako; baina beste asko, behin eta berriz bisitatu behar izan zituen. Hala, 1946ko irailaren 22an Donibane Lohizunen egin zen bertso-festan hamasei bertsolari bildu ziren: Xalbador, Zubikoa, Intzabi, P. Iriarte, Xetre, Goikoetxea, Aintziart, Errexil, Etxahun, Larramendi, Gariador, Etxexuri, Mattin, Meltxor, Larramendi eta Felix Iriarte. Eta hurrengo azaroaren 17an Hazparden egingo zen norgehiagokarako zortzi hautatu zituzten: Xalbador, Zubikoa, Etxahun, Felix Iriarte, Goikoetxea *Orkazarre*, Mattin, Etxexuri eta Meltxor, hain zuzen ere.



Mattin eta Xalbadorrekin. Paris 1958

Hurrengo urtean, hiru jaialdi antolatu zituen: 1947ko abuztuaren 24an, Ezpeletan; 1947ko irailaren 8an, Donibane Garazin; eta 1947ko urriaren 5ean, Donibane Lohizunen. Azkenengo saio honetan, Mattin izan zen txapelkun; eta Felix Iriarte bigarren. Gero, Zubikoa eta Etxahun gelditu ziren hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren.

Inor gutxik ezagutzen zituen bertsolariak auzoz auzo bildu eta jaialdi itxurako txapelketak antolatuz, sekula inork behar bezala eskertu ez zion lana egin zuen Teodoro Hernandorenak Iparraldeko bertsolaritzaren alde. Hala aitortzen dio Xalbadorrek *Odolaren mintzoa* liburuan: «Gerla ondoan Hernandorena jauna abiatu zenean hemen gaindi pertsulari bila, nitarat ere gidatu zen. Eta Donibane Lohizunen muntatu zuen xapelketa batera ereman ninduen. Eta hori enetzat munta handikoa izan zen. Eta ahalgerrik gabe erran dezaket, gu, Mattin eta ni, Hernandorenari esker ezagutu gaitu Euskal Herriak».

Euskal Herriko Txapelketak

Lehenengo hiru urtean iparraldeko bertsolariekin saiatu ondoren, hurrengo ahalegina Euskal Herri guztiko bertsolariekin egin zuen 1949an, honelaxe: Saran, lehenik eta Luhoson, hurrena. Hala ere, gerraosteko lehenengo txapelketa nagusia Urruñan jokatu zen, 1949ko azaroaren 20an, hego eta iparraldeko bertsolari ezagun askorekin: Basarri, Errexil, Xalbador, Zubikoa, Uztapide, Mattin, Etxahun, Iriarte, Uhalde, Sarasola, Trounday, Caillaba, Xanpun eta Capdeville.

Euskal Herri mailako bigarren txapelketa, 1950eko urriaren 1ean egin zen, Donibane Lohizunen, mugaren bi aldeko bertsolariekin. Sarasola, Mattin, Xanpun, Zubikoa, Errexil, Basarri eta Iriarte bildu ziren egun hartan.

Hurrengoak Baigorri eta Saran egin ziren, 1951ko irailaren 23an eta 1952ko irailaren 21ean. Beste bertso-jaialdiak ere antolatu ziren hari horri jarraituz. Baina aipagarrienak Luhuson eta Baigorri 1953an egindakoa izan ziren, edo eta Hazparnen 1954ko irailan egindakoa.

Pariseko jaialdi ederra

Hala ere, gerrak erbesteturik zebiltzan ekintzaile aspergaitzek 1957 eta 1958an lortu zuten bere arrakastarik onena. Garai bateneko *Euzkadi-Europa* buruan, 1957an Ezpeleta eta Donibane-Garazin hasitako eliminatoriak 1958ko apirilaren 13an burutu ziren Urruñako *Itsas-Mendi* aretoan egindako jaialdi eder batean.

Parisetik etorrita antolatu zuten bertsolari-bilerari indarra eta motibazio gehiago eman nahirik, Irungo olerkari famatu izan zen Basurkoren omenez antolatu zuten. Eta mugaren bi aldetako sei bertsolarik kantatu zuten: Basarrik, Uztapidek, Mattinek, Xalbadorrek, Aintziartek eta Errexilek. Lehenengo laurak hau-

tatu zituen epaimahaiak Parisen kantatzeko, jaialdi eder batean. Eta ametsa zirudiena egia bilakatu zen 1958ko maiatzaren 18an. Aspaldi ereiten ari zen haziak fruitua eman zuen.

Propagandari eta marketinari behin-behineko garrantzia eman zioten. Eta halaxe, Pariseko ikastetxe nagusi denak, Sorbonako Unibertsitatea eta berorietako ordezkariak gonbidatu zituen jaialdira. Baita Parisen bizi ziren ospe handiko euskaldunak, elkarte euskaldunetako ordezkariak zein errefuxiatuak zebiltzan euskaldunak ere. Bestalde, jaialdi honen inguruan egin zen zabalkundearen eraginez, telebista, irrataria eta egunkari askok esku hartu zuen. Gure historian lehenengo aldiz agertu ziren bertsolariak telebisio-pantailatan.



Monzon, Xalbador eta beste lagun batzuekin

Urruñakoan bezalaxe, Pariseko jialdi honen antolatzaile eta gidaria Teodoro Hernandorena bera izan zen. Eta Euskal Etxeko pilotalekuan egin zen lehiaketaren hasierako bere lehenengo hitzak grabatu ez baziren ere, bigarren zatiaren honelaxe zioen, emozioz gainezka:

Jaun-andereak: Bihotz-miñez, hastera nijoakizue bigarren saioa presentatzera. Bihotz-min hori haundiagotu zait Dassance jauna hemen ikusita. Eta Dassance jauna hemen ikusirik etzait iruditzen Oxobi jauna bazterren batean ikusi behar ez dedanik. Baina, zoritxarrez, ez degu ikusiko. Otoitz egin degu goizean bere ohorez, eta orain bertsolariak eskeifiko diote bere omena.

Bigarren saioan bertsolariei hitza eman aurretik, Oxobi zenak bere adiskide Saint-Pierre apezpikua hil zenean haren oroitzapenez idatzi zituen bertso batzuk irakurri zituen Hernandorenak, sentimendu handiz.

Omenaldiak

Omenaldi bat baino gehiago egin zioten Teodorori azkenengo urteetan. Besteak beste, bere jaioterriko kale bati *T. Hernandorena* izena eman zioten. Eta gogoan dugu pilotari eta pilotazaleek Saran egin zioten omenaldia ere, 1985ean. Eta, bereziki, 1992ko *Bertsolari Eguna*, Donostiako Victoria Eugenia aretoan. Urteen pisuz ahultzen hasita zegoen zizurkildarra; baina egun handia izan zen harentzat.

Denak ez ziren bildu, baina berrogeita hamar bertsolari kontatu genituen omenaldian, eta mila bat bertsozale bero, Emile Larre eta Mariano Izetarekin batera Teodoro Godofredo Hernandorena omentzeko. Bertso asko eta hunkigarriak entzun genituen, hiru aitona haiek bertsolaritzaren alde egindako lana eskertu nahirik. Merezi zuten, noski.



Donostiako omenaldia. 1992



Donostian omenaldia. 1992

Teodoro Hernandorenari zegokionez, Manolo Arozamena bertsolari nafarrak kantatu zuen bertso luzeak honela bildu zituen haren bertsolaritza-saileko merezimendu batzuk:

Zuri kantatu asmotan nator,
nere jaun Hernandorena;
bertsolaritza barruan nola
hustu zenuen barrena.
Gazte denboran ibili zinen
estranjerian barrena.
Etorri eta bilatu zenun
bertsoa nahiko herrena.
Iparraldeko txorien bila
gorputz txikian kemena.
Xalbador hartu aurrena,
Mattin zetorren hurrena.
Zure langintzak eman duenez
bere emaitz nabarmena,
merezi dezu bertsozaleok
eiten dizugun omena.



Lagun Imanol Murua eta Baserrirekin

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Amaia Hernandorena eta familia osoari*
- *Joakin Berasategi eta Sendoari*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde (g.b.)

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2186-0 (Lan osoarena)
84-457-2188-7

L.G.: BI-2960-04